



Beldurra

Yerai Ros Ganuza

EUSKARA POESIA 14-16 URTE

3. Saria

Beldurra, gure gorputzean sartzen dena,
aurrera egitea eragozten diguna.
Zu zara, bai, beldurra, gure ametsak,
hobi batean lurperatzen dituen.
Zu, gure bihotza pizten eta
haren ilusioa kentzen duena,
zu zara gure hegal delikatuak
urratzen eta hausten dituen.
Bularrean sartutako daga bat bezala,
Bizkarrean gogor erortzen den zartailua,
argia pasatzen uzten ez duen beira opako bat,
lore ihartua, ibai lehorra.
Itsasoari beldurra dion marinela,
hitzei beldurra dien poeta.
Tiroak egiteko beldur den akuilari hori zara,
bere pertsonaiei beldurra dien marrazkilaria.
Beldurra, zu gainditzen uzten diguzu,
horrela ausartak izan gaitezen.
Zu zara, bai, beldurra, zure altzairuzko atzapar luzeekin
estropezu egiten gaituna.
Zu, altxatzen gaituen bulkada zara, zeren...
denok dakigu zutik egoteko
lehen erori behar izan garela.

